



NAHIKO! 5-6

HITZAR- MENA

3

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (1/2)

1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Hirugarren unitate didaktikoak hiru helburu ditu. Lehenengoa, aurreko bi unitate didaktikoak gogoratu, sakondu eta laburtu, bereziki genero estereotipoak eta norberaren bizitza proiektua bizitzaren lau esparruetan. Bigarrena, gure ikasleei nork bere proiektua aurrera eramateko konpromisoa behar dela ulertarazi, esfortzua eta konpromiso handia, generoko ohitura, debeku eta baimenen errazatan ez erortzeko ahalegin pertsonala. Eta azkenik, gizarte osoaren konpromisoa eta hitzarmena behar dela aurrera egiteko, bereziki gure erakunde eta ordezkariena. Aipatu dugun norberaren eta familien ahalegin hauek arrakasta izan dezaten, guztiz beharrezkoa da gure gizarte osoaren eta erakundearen erantzunkizuna, konpromisoa eta hitzarmena, heuren laguntza, bitarteko eta errekurtsioak guztiz beharrezkoak direlako lan horretan.

Lehenengo helburua dela eta, lehen hurbilketa egin ondoren, genero estereotipoak berriro identifikatu, aztertu eta hausnartzeko garaia da orain. Orain arte konturatu ez bagara ere, beraiek baldintzatzen dutelako etengabe errealitatea ikusteko eta ulertzeko gure modua, geure burua ikusi, ulertu eta gure nortasuna eraikitze modua, gure bizitza proiektua eta beste pertsonekin ditugun harremanak, naiz bikotean, familian edo kalean. Soil-soilik guzti hau kontutan badugu, soilik gure ideia, sentimendu, jarrera eta jokaera etengabe genero ikuspuntutik aztertzen baditugu, nahi duguna izan ahal izango dugu eta nahi dugun proiektua burutu. Bestela, "pertsonak erdiak" izaten jarraituko dugu, beste batzuen azpiko edo beste batzuen gaineko sasipertsonak, antzinatik idatzita dagoen gidoi baten antzezle klonikoak. Feminitate eredu estereotipoaren arabera, emakumeok men egite erudian eraikiko dugu gure burua eta gure bizitza, eta gizonok berriz, maskulinitasun estereotiputik, menperatze erudian.

Bizitza proiektu pertsonala, osoa, autonomia eta lau esparruetan orekatua eramatea ez da erraza. Norberaren buruarekin konpromisoa eta esfortzu handia eskatzen du. Gure jokaerak eta gure ingurukoak etengabe aztertu behar ditugu. Maiz, gehiengoaren kontrara bizitzea eskatzen du. Ez da erosoena. Ez da errazena. Alderantziz, generoaren gizarteko debeku, baimen eta txaloei kontra egiteko norberaren aukera garbia behar da.

Nork bere buruarekin eta bere proiektuarekin hitzarmena egitea eskatzen du, bizitza proiektu pertsonala aurrera eramateko hitzarmen sendoa. Honek neskekin lanaren esparruan lan berezia egitea eskatzen du, eta mutilekin berriz, familiaren esparruan, genero estereotipoek esparru horietatik kanpo utzi baitituzte.

Antzeko konpromisoa, esfortzua eta genero kontzientzia behar dira bikotearen eta familiaren esparruan. Bakoitzaren proiektua errespetatu, bultzatu eta ahalbideratuko duen bikotearen eta familiaren hitzarmena beharrezkoa da. Tratu onen aldekoa, emakumeen eta gizonen berdintasuna aldarrikatuko duen hitzarmena. Maitasunean eta afektibitatean, bikotean eta familian, ez soilik gizonen giza eskubideak gauzatuko dituen, baizik eta emakumeen ere gauzatuko dituen.

Azkenik, pertsonen, bikoteen eta familien ahalegin guzti hauek nekez lortuko dute tratu txarrak aurreikusi eta baztertzea, gizarte osoaren konpromisoa eta hitzarmena ez bada ematen. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko eta tratu txarren prebentziorako gizarte osoaren hitzarmena, eta bereziki erakundeen konpromisoa eta akzio indartsua, ezinbestekoak dira.

Aurreko guztiagatik, "Hitzarmena" da unitate honen izenburua.

2 MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktiko honek **bi material edo jolas osagarri** hauek ditu:

- 1.- "Bizitzaren Lau Hankak" jolasa.
- 2.- "Beti Aurrera!" diska-foruma.

Eta **lau koaderno** hauek:

- 1.- Irakaslearen gida, bi koaderno (1/2 eta 2/2), kolore urdinekoak.
- 2.- Ikaslearen "Hitzarmena" koaderno, kolore horikoa.
- 3.- Familiaren "Hitzarmena" koaderno, kolore berdea duena.

Hona material hauek erabiltzeaz gain proposatzen dugun beste **ekintza osagarri bat**:

- **"GURE ABESTIAK"**: Aurrena, bakarka, bakoitzak bere bizitza lagundu duten abestiak gogoratu behar ditu. Bereziki gustoko abestiak, esaten dutenarekin bat gatozen kantak, entzun eta kantatzen ditugunean gureak egiten ditugunak.

Garena edota izan nahi duguna adierazten dutenak, mundua nola ikusi edota besteekin nola erlazionatzen garen adierazten duten horiek. Guk pentsatu, sentitu edota egiten duguna gure hitzek baino hobeto azaltzen duten abestiek. Isladatzen gaituzten kantak. Gure bizitzarako eredu direnak.

Gero, **taldeka**, egindako aukerak amankomunean jartzen dira. Neska guztiak edo gehienek aukeratutako abestiak al daude? Eta mutil guztiak edo gehienek? Eta neska-mutil gehienek aukeratutakoak? Zergatik egiten ditugu gureak? Musikarengatik? Zergatik, zer esaten digute doinu horiek? Hitzengatik? Zer diote, zergatik egiten dugu bat beraiekin? Kantariengatik? Zergatik, zergatik identifikatzen gara beraiekin? Gure ereduak dira, zertan?

Unitate honen **Familiaren Koadernoan**, antzeko zerbait proposatzen zaie etxean egiteko, azter dezaten zein kanta diren etxekoen kezka eta ereduak jasotzen dituzten kantak.

Talde lanaren atzetik, hainbat lan egin daitezke aztertutakoa jasotzeko: kartelak ondorioekin, laburpenak, idazlanak, kanten letrak, disken azalak, etabar.

3 "BIZITZAREN LAU HANKAK" JOLASA

OSAGARRIAK:

56 txartel, bakoitzak launa froga dituelarik, bat bizitzaren arlo bakoitzeko (nineu, familia, gizartea eta lana). Denetara, 224 froga ezberdin.

Jolasa eskoletan egin diren bigarren saio berezian erabilitakoa da. Txartel hauek bigarren unitate didaktikoko "Bizitzaren Jolasa" jolasaren telazko bi taulekin eta fitxekin jolasten da.

Froga mota ezberdina da bizitzaren esparru bakoitzean. Laukitxo urdinetan (ni-neu), hitza asmatzeko mimika egin beharko da. Laukitxo horietan (familia) berriz, definizioa irakurri. Berdeetan (gizartea), idatzita dauden hitzak erabili gabe, asmatu beharrekoa azaldu behar da. Eta gorrietan (lana), asmatu beharrekoa marrazkiz azaldu behar da.

Jolasa: Taldeka jolasten da. Jokalaritalde bakoitzak irteera lauki batetik irten behar du (lau izkinekoak), lau esparruetako erdiko lauki handietan froga gainditu eta irteerara itzuli. Hasieran, jokalaria-talde bakoitzak soilik hasi den koloreko laukietatik egin dezake aurrera. Dadoaren emaitzak beste kolore batera badarama, ezingo du aurrera egin. Behin hasierako kolore horren esparrua gainditu edota lortu ondoren, zein beste esparrura Joan nahi duten erabaki eta, hortik aurrera, bi kolore horietatik mugi daitezke. Zenbat eta arlo gehiago gainditu (bizitza proiektua orekatuz), orduan eta kolore gehiago aurrera egiteko, orduan eta mugimendu gehiago taula gainean (orduan eta hobeto bizi).

Jolas txanda bakoitzean, jokalaria- talde bakoitzak gehienez hiru bider bota ditzake dadoa, froga gainditu eta aurrera egin. Gero besteen txanda izango da.

Hizki bera duten laukiak, batetik bestera salto egiteko balio dute. Berdin Nahiko logoa duten laukiak. Hauetan, gainera, ez da inongo frogarik egin behar.

FROGAK 1

MIMIKA

Mutil
solidarioa.

FROGAK 2

DEFINIZIOA

AITON-
AMONAK:
gure gurasoen
gurasoak.

FROGAK 3

MARRAZKIA

Gizonezko
garbitzailea.

FROGAK 4

HITZ DEBEKATUAK

SOLIDARI-
TATEA:
laguntza,
behartsuak,
GKE.

4

"BETI AURRERA!" DISKA-FORUMA

OSAGARRIAK:

20 kartoi, beste horrenbeste abestien hitzekin, hamar euskaraz eta hamar gazteleraz. **Aurrekaldean**, kanta bakoitzaren letra dator eta, abestia lortu eta entzun ondoren, ondo ulertzeko eta generoaren ikuspuntutik eta Nahiko programaren edukien aldetik abestia aztertzeko eta hausnartzeko hainbat jolas eta ekintza datoz.

Abesti guztien **atzekaldean**, guztiekin erabil daitezkeen hainbat jolas eta ekintza proposatzen dira: **AZTER DEZAGUN. JOLAS GAITEZEN:**

- Abestiaren musika berbera erabiliz, letra aldatu abestiari.
- Abestiari dantza edota koreografia bat asmatu.
- Abestiak inspiratutako marrazkia, komikia edo murala egin.
- Abestia edota bere gaia, egoera, pertsonaiak... antzetzatu.
- Abestia, taldeak elkarrekin asmatutako argazki batekin irudikatu (argazki geldo bat, irudi finkoa).
- Izenburuaren desberdina den beste izenburu edo slogana atera gai horri buruz.
- Esaldi bakar bat hartu, eta musika berberarekin, edo beste batekin, beste kanta bat asmatu, hartutako esaldia abesti berriraren izenburu bilakatuz.
- Abestiak kontatzen duen historioari erantzun bat eman, musika berbera edo musika desberdina duen beste abesti bat asmatu.
- Abestiak, ez du egoera osoa detaileekin zehazten. Osatu istorioa, eta emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntutik bukaera positiboa duen ipuina edo idazlana asmatu.

PIENSA EN POSITIVO
SIN ETIQUETAS DE GÉNERO
DESDE LA IGUALDAD
SIN MALOS TRATOS
DESDE LOS DERECHOS HUMANOS

19 Salir corriendo. AMARAL

Nadie puede guardar toda el agua del mar en un vaso de cristal.

¿Cuántas gotas tienes que dejar caer hasta ver la marea crecer?

¿Cuántas veces te ha hecho sonreír? Esta no es manera de vivir.

¿Cuántas lágrimas puedes guardar en tu vaso de cristal?

Si tienes miedo, si estás sufriendo tienes que gritar y salir, salir corriendo.

¿Cuántos golpes dan las olas a lo largo del día en las rocas?

¿Cuántos peces tienes que pescar para hacer un desierto del fondo del mar?

¿Cuántas veces te ha hecho callar? ¿Cuánto tiempo crees que aguantarás?

¿Cuántas lágrimas vas a guardar en tu vaso de cristal?

Si tienes miedo, si estás sufriendo tienes que gritar y salir, salir corriendo.

Analicemos. Juguemos

- ¿Cuál es el tema de la canción? ¿Quién canta la canción y sobre todo, a quién se la canta y para qué?
- ¿Qué situación creéis que está viviendo la persona a la que le cantan la canción? ¿Creéis que está en peligro? ¿Por qué?
- ¿Qué sentís al oír la letra y la música de la canción: complicidad, tristeza, indignación, miedo, ganas de actuar...?
- ¿Por qué creéis que tiene miedo la persona a la que le cantan la canción? ¿Creéis que tiene motivos para tener miedo?
- ¿Creéis que alguien que no nos hace sonreír nunca nos quiere? ¿Por qué?
- ¿Creéis que alguien que nos hace callar continuamente nos quiere? ¿Por qué?
- ¿Creéis que alguien que nos hace llorar por dentro hasta ahogarnos nos quiere? ¿Por qué?
- ¿Creéis que alguien que nos hace sufrir y sufrir nos quiere? ¿Por qué?
- ¿Tiene sentido vivir con alguien que no te quiere y te hace sufrir y sentir miedo? ¿Por qué?
- ¿Creéis que podría ocurrir algo parecido? ¿Por qué? ¿Qué haríais vosotras y vosotros en esa situación?
- ¿Creéis que como dice la canción, cuando sentimos miedo y estamos sufriendo hay que gritar y salir corriendo, pedir ayuda y alejarse del peligro?



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NAHIKO! 5-6

HITZAR- MENA

3

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (2/2)

Beti Aurrera!

1. Ez gaitu inork geldituko. URTZ
2. Zuloak estaltzen. GORKA SARRIEGI
3. Behi guztiak ez gara berdinak. BETIZU
4. Orain. HEMENDIK AT
5. Zure amak badaki. SOROTAN BELE
6. Xoxoak beleari ipurbeltz. URTZ
7. To be or to beee!. JOXE RIPIAU
8. Gogoak eman hala. MAIXA TA IXIAR
9. Bidean. KEN 7
10. Zure ingurua. BETAGARRI

1. Ez gaitu inork geldituko. URTZ

Nork esan du ezinezkoa da?

Nork onartu, hori hala dela?

Zaila bada, ez da ezinezkoa;

zaila bada, badago lortzea.

Eta ibiliz ikasten bada oinez

has gaitezen bidea egiten.

Ez gaitu inork geldituko.

Ez gaitu inork geldituko.

Nork esan du, ez dago lortzerik?

Nork esan du ez dut gaitasunik?

Zaila dena, zaila bada berez

Guk ohi dugu zailago egiten.

Eta ibiliz ikasten bada oinez

has gaitezen bidea egiten.

Ez gaitu inork geldituko.

Bidairik luzeena, beti,

pauso batez hasten da.

Ez gaitu inork geldituko.

2. Zuloak estaltzen. GORKA SARRIEGI

berdin zait igual zait zu ni estutzea

ez dut atzera egingo iritsi arte

nire helburuetara

sua nabari dut nire oin-hutsetan

izerdi jario eroriko banintz ez

nintzake altxako

ezagunegi ditut zure jarrera

ezkorrak ez nazazula eskatu besterikan

gabe denari ukatzea

eskainiko naiz

nire grinaren ametsetara

loturarik gabe

bizitzeko askatauna

eta hilko naiz

nire aldamenean egon ez ba

duzu nahi

ardurarik gabe

zuloak estaltzen

maliziz diozu ez dudala lortuko

nazkaturik nago ikusiko da nor

nekatzen den lehenago

ez duzu inoiz izan niregan inolaz federik

besteen txaloak entzutean hasi

zarella zu txaloka

3. Behi guztiak ez gara berdinak. BETIZU

Bi adar eta lau hanka ditugu,
hala ere ezberdinak gara gu;
**Guk ere badugu gure izaera,
bakoitzak berea,
hala hobe da!**

Behi guztiak ez gara berdinak.
Ia beti egin arren "Mu! Mu! Mu!"
beti gauza ezberdina diogu.
Guk ere badugu gure izaera...

4. Orain. HEMENDIK AT

Orain da
zure garaia
aurrera eraman
asmo guztiak.

Orain da...
Orain da...

3, 2, 1... Goazen!!!

Plangintza anitz egiten
ordutegiak finkatzen
denbora luze galtzen uzten da.
Etorkizuna prestatu
biharkoa antolatu
gure ardurak izaten dira.
Oraina non ote da?
gozatzeko aukera?
ta bizitza bizitzeko zoramena?
Gerokoa uztazu
eginbeharrak ahaztu
egintzazu gustokoena.
**Orain da zure garaia
aurrera eraman
asmo guztiak.**

**Ez utzi
edonorren pe
erabakiak zure esku daude.**
Ikasketak ongi amaitu
lanpostu finkoa bilatu
bizitza antolaturik dugu.
Baina ez gara errobotak
aurretik programatuak
ta askatasuna ere behar dugu.
Oraina non ote da?
gozatzeko aukera?
ta bizitza bizitzeko zoramena?
Gerokoa uztazu
eginbeharrak ahaztu
egintzazu gustokoena.
Orain da ...
Orain da
zure sentimenduak
mundu guztira plazaratzeko
unea.
Orain da
ordua zabaltzeko
barru-barruan duzun arima
gaztea.
Orain da ...

5. Zure amak badaki. SOROTAN BELE

Zer egiten nagoen
galdezka nabil behin eta berriz
neure buruari.

Gaur ez naiz ni goiz jeiki
biraka nabil buelta emanez
hola nabil ni.

Ez al naiz inoiz ni konturatuko?
egin behar den guztia ez dut nik egingo
gezur bakar bat nahikoa izaten da
hankaz gora uzteko sinisten nuena
izanen da.

Neuk eraman behar izan nuen
gurutze haren zama bizkar gainean
pausoka aldentzen joan nintzen
erakutsitako ohituretatik
azkenik askatu nituen barruan/
neramatzan malkoak.

6. Xoxoak beleari ipurbeltz. URTZ

Ez dakit zergatik,
ez dakit zergatik
errazago gertatzen da
norberak
izaten dituen akatsak
besteengan ikustea.

Xoxoak beleari ipurbeltz!

Ez dakit zergatik,
ez dakit zergatik
errazago gertatzen da
norberak
izaten dituen akatsak
aitzakietan estaltzea.
Xoxoak beleari ipurbeltz!
Geure burua
ondo ezagutu arte...
xoxoak beleari ipurbeltz!

7. To be or to beee. JOXE RIPIAU

Zenbat jende
zure aita izan nahi duena!
Zenbat jende
zure ama izan nahi duena!
Zenbat jende
zure eredu izan nahi duena!
Zenbat jende
zure epaile izan nahi duena!
**Izan zaitetz
zeure buruaren jabe**
Izan zaitetz zeu!!!
Zenbat jende
zure nagusi izan nahi duena!
Zenbat jende
zure irakasle izan nahi duena!
Zenbat jende
zure errege izan nahi duena!
Zenbat jende
zure jaingoiko izan nahi duena!
Izan zaitetz zeure buruaren jabe
Izan zaitetz zeu!!!



8. Gogoak eman hala. MAIXA ETA IXIAR

Normaltzat omen zeure burua
zer da hori gajua arauz betetakua
sentitzen ere uzten ez dizun hoiakua

**Ile gorri ezpain urdin
edo zaku bat sartuta berdin**

**Ipur tente; tente-potente
Ze inporta zaik hiri xeobre**

Lurra aberatsa baldin bada
desberdinak geralako da
ez hadi gehiago saiatu
dena klonifikatzen
usteldu behar duk eta

Ile gorri...

9. Bidean. KEN ZAZPI

Ba al daki inork bereizten
zerua ta infernua
nor dagoen sufritzen eta
nork daukan errua

Eta ba al dakizu bereizten
malkoen arrazoia

sentimentuen zergaitia
bakoitzaren egia

Erantzunen beldur zara!
behar diren galderak egitean

ustel usaia dena estaltzen
erantzunen beldur zara

noren beldur zara
Ez al daki inor bereizten

albisteen kolorea
boteretsuen armak eta
etorkinen gosea

ta ba al dakizu zuk bereizten
hitz bakoitzaren zentzua

inoiz galtzen ez dutenen
aurpegi faltsua

Erantzunen beldur zara!
behar diren galderak egitean

ustel usaia dena estaltzen
erantzunen beldur zara

noren beldur zara
Gauzak aldatzeko beharra

serrailak bidean
begiak ireki behar dira
kolpe ta kolpe artean, bidean

Gauzak aldatzeko gogoa
mina zaurietan

begiak ireki behar dira
horma zaharren aurrean

Itsu eta isilik egotea errezagoa da
haien gurpilean sartzea hain

erosoa da
eta zailena
amets ez egitea

gu geu izanda
aurrera eginez

gure bidean
gure bidean

gure bidean

Ba al daki inork bereizten

nahi dugunaren pisua
dena dutenen amorrua
esku hutsen mezua

Gauzak aldatzeko behara
serrailak bidean

begiak ireki behar dira
kolpe ta kolpe artean, bidean

gauzak aldatzeko gogoa
mina zaurietan

begiak ireki behar dira
aurrera eginez gure bidean

gure bidean

gure bidean

gure bidean

gure bidean

10. Zure ingurua. BETAGARRI

begira ezazu zure ingurura
eta esaidazu horrelakoa den

nahi duzun mundua
espabilatu garaia duzu eta

eskuratzeko dagoeneko
galdutako guztia

gazte berri, neoliberal

gazte burges, gazte konforme
zure mutur aurrean

jokatzen ari dira
gazte global, antiradikal

pasiboa, positiboa
hutsaren aurrea

zu zeu zeu zara

ez egin so zure zilborrari

jokoan ez zaude bakarrik
banatu indarra eta hor eutsi

gogor eutsi, gogor eutsi!!

horri atxeki, horri atxeki!!

eralda ezazu zure ingurua

benetan ziur zaude
horrelakoa den

nahi duzun gizartea
gauzatu jada, ahulen mendekua

behingoz argi uzteko
gazteriarekiko begirunea

oraina jada iragan da
etorkizuna jokoan.

